

aupe
gazteok!

BIXKOR da, MUSIKAREN TEORIAKO TXAKURRA!



G: Bixkor maitea:
Badirudi justuak diren bitarteen artean eta ez direnen artean planteamendu desberdinak erabili behar ditugula. Laburtuko zenizkidake modu bakar batean?

--B. L., Orio (Gipuzkoa)

E: GUAAH!*

***ITZULPENA:** ONDORENGO TAILAK **MOTA GUZTIAK** **BITARTEAK** NOLA IDATZI ESATEN DIGU. HELBURUA **EMANDAKO NOTA** BATETIK ABIATUTA **BITARTEA IDENTIFIKATZEA** BADA, ANTZERAKO PLANTEAMENDUA ERABILI DAITEKE: LEHENIK ETA BEHIN, IDATZI **DISTANTZI** EGOKIRA **EMANDAKO NOTAREN** GAINETIK EDO AZPITIK; ONDOREN, JARRAITU TAILA HONETAKO **2-4 PAUSUAK** **BITARTEA IDENTIFIKATZEKO**, ETA ALDAKETARIK BEHAR DUEN JAKITEKO. AZKENIK, SARTU **ALTERAZIOAK** **NOTA BERRIAN ZURE** HELBURUA LORTZEKO.

1. PAUSUA:

ZENBATH TARTEAREN **TAMAINA**
LERROAK ETA **HUTSUNEAK** ERABILIZ.



BEHERENGO NOTA
LEHENA BEZALA HARTU,
ETA JARRAITU **GOIKORA**
HELDU ARTE.

2. PAUSUA:

ALTERAZIO **GUZTIAK** EZTALI.



3. PAUSUA:

AURREAN DUZUN (ALTERAZIORIK GABEKOA!)
BITARTEAREN **MOTA** ZEHAZTU:

UNISONOA EDO
ZORTZIDUNA BADA:

LAUDUNA EDO
BOSTUNA BADA:

BIDUNA, HIRUDUNA,
SEIDUNA EDO
ZAZPIDUNA BADA:

BITARTEA
UNISONO JUSTUA EDO
ZORTZIDUN JUSTUA DA.

BITARTEAN **FA** ETA **SI**
AZALTZEN BADIRA, ORDUAN,
LAUDUN GEHITU
EDO **BOSTUN GUTXITU**
BATEN AURREAN GAUDE.

GOIKO NOTA
BEHEKOAREN ESKALA
MAIORREAN BADAGO,
BITARTEA **MAIORRA** DA.

BENETAN.
HORI DA AIN
JUSTU ERANTZUNA.

BESTELA, BITARTEA
JUSTUA DA.

BEHEKO NOTA
GOIKOAREN ESKALA
MAIORREAN BADAGO,
BITARTEA **MINORRA** DA.


4. PAUSUA:

JARRI BERRIZ **HASIERAKO ALTERAZIOAK** BERAIEK LEKUAN, **BANAN-BANAN**,
ETA EGIN AHALA ALDATU BITARTEAREN MOTA.

BITARTE
JUSTUAK



BITARTE EZ
JUSTUAK



6M



6m



6g

GOGORATU: ALTERAZIOEK EZ DUTE
ERAGINIK BITARTEAREN **TAMAINAN...**
EGIN DEZAKETEN GAUZA
BAKARRA **MOTA** ALDATZEA DA!

PROZEDURA HONEK **KONPLIKATUA**
DIRUDIEN ARREN GERO ETA **ERRAZAGOA** ETA
AZKARRAGOA BIHURTZEN DA **PRAKTIKAREKIN...**
ETA **BETI** LORTZEN DA **EMAITZA ZUZENA!**

BETI DA DIBERTIGARRIA BIXKORRI JARRAITZEA!